



HAUSNARKETA SOZIALEI BURUZKO IX. JARDUNALDIAK

"HIRITARTASUN BALOREEN HEZKUNTZA"

2009ko azaroaren 4an eta 10ean, 19:30ean
Gasteizko Europa Kongresu-Jauregian

2009ko azaroaren 18an, 19:30ean
Hotel General Álava-n, Gasteiz hiribidea, Vitoria-Gasteiz

Baloreen Hezkuntzak betidanik kezkatu du gizartea. Interes hori premia bihurtu da ikusirik nolako den munduak eta, zehazkiago, gure gizarte gertukoenak bizi duen egoera. Fernando Buesa Fundazioak bere egin zuen kezka hori hausnarketa eta ekintzen bitartez. Fundazioak Hezkuntza eta, zehatzago esanda, Baloreen Hezkuntza bihurtu zuenetik bere jardunaren ardatz, hainbat ikerketa, ikastetxeetako lan eta hausnarketarako topaketa eta jardunaldi antolatu eta gauzatu ditu.

Guretzat kezkagarria ez da hezkuntza sistemak balorerik ez irakastea, baizik eta gaur egun gure ingurune estuan hezkuntza sisteman gailentzen ari diren baloreak mota jakin batekoak direla, hain zuzen ere, politika eta gizarte esparruetan gailentzen ari diren berberak.

Balore zibikoei dagokienez, hezkuntza dagoeneko erronka bat bilakatu da, helduen gizartean hasi behar duen aldaketa pertsonal eta soziala eskatzen duena. Baloreak ez dira irakasten, biziz eta erabiliz zabaltzen dira. Balore demokratikoak bizitzan egiten ditugun aukerak dira, hots, eskura ditugun beste aukera batzuen artean egiten ditugun hautuak, bizitzeko era edo molde jakin bat dakartenak. Egia esan, pertsonak gizaki bihurtzen dituzten benetako giza ezaugarriak dira. Hori guztia kontuan izanda, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da hausnarketa kritiko bat egitea jakintza-eremu desberdinetatik, hezkuntzan eta hiritarren artean egiten dugun lanak gida bat izan dezan gaur egungo gizartean eta bizitza osoan zehar.

Fernando Buesa Fundazioak beste urrats bat egin nahi du langintza horretan, Hausnarketa Sozialei buruzko Jardunaldi hauek antolatuz. Jardunaldi horiek, hizlarien garrantzia ikusita, gune pribilegiatu bat izango dira ikuspuntu kritiko batetik sakontzeko baloreen hezkuntzan, azterketarako nola ekintzarako lagungarri izan behar dugun diziplina anitzeko ikuspuntu batetik. Hona hemen jardunaldi hauetan parte hartuko

duten hizlariak: Javier Roiz, Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko katedraduna; Concha Maiztegi, Deustuko Unibertsitateko Pedagogia Soziala Saileko zuzendaria; eta Xavier Bonal, Soziologian doktorea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. Guztiek ere beren ikerketen berri emango dute, planteamendu teoriko berrietatik hausnarketa bat bultzatuz hiritarren nortasun sakonak hain errotik eragiten dion tolerantziaren kontzeptuaz.

EGITARUA

2009ko azaroaren 4an, Gasteizko Europa Kongresu-Jauregian

Ordua: 19:30

Hizlaria: **Sr. Javier Roiz**, Zientzia Politikoetako eta Soziologiako doktorea eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko katedraduna

Titulua: "**Hiritarraren gobernu eta desgoberrua**".

2009ko azaroaren 10ean, Gasteizko Europa Kongresu-Jauregian

Ordua: 19:30

Hizlaria: **Concha Maiztegi**, Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko Pedagogia Soziala Saileko zuzendaria

Titulua: "**Gizarte plural baten eraikuntza: hiritarren hezkuntzaren erronkak**".

2009ko azaroaren 18an, Hotel General Alava-n, Gasteiz hiribidea, Vitoria-Gasteiz

Ordua: 19:30

Hizlaria: **Xavier Bonal i Sarrió**, Soziologiako doktorea (Bartzelonako Universitat Autònoma) eta Zientzia Ekonomikoetan lizentziatua

Izenburua: "**Hiritartasuna(k) eskolatik eraikitzen**".